

Etika Publikorako Batzordea

2/2017 gaia

ERABAKIA, (...)AK AURKEZTUTAKO SALAKETARI BURUZKOA. (...) SEKZIOKOA DA, ETA SALAKETA AURKEZTU DU, (...)KO SAILBURUORDE (...) JAUNAK ETA (...)KO SAILBURUORDE (...) JAUNAK (BIAK (...) SAILEKOAK) USTEZ EZ DUTELAKO EZER EGIN, BEHIN ETA BERRIZ EGIN DUEN KEXAREN AURREAN; IZAN ERE, KEXAN SALATZEN DUENEZ, (...) UNITATE BURUAK (...)AK OPARITZEN DIZKIE FUNTZIONARIO JAKIN BATZUEI, NAHIERAN ERABIL DITZATEN.

1.- 2016ko azaroaren 8ko posta elektronikoz batez, (...) jaunak salaketa jarri zuen (...) sailburuorde (...) jaunaren eta (...) sailburuorde (...) jaunaren aurka (Eusko Jaurlaritzako (...) Sailekoak dira biak), ondoren azaltzen diren kontsiderazioetan oinarrituta.

2.- Postan esaten duenez, “2013. urtetik”, salatzailerak behin baino gehiagotan jakinarazi die sailburuorde biei “ (...) buruak (...)ak oparitzen dizkiela funtzionario batzuei, nahieran erabil ditzaten, erabilera kontrolatu gabe eta zerbitzu-beharrik izan gabe”. Kexaren irismena eta esanahia mugatzeko, interesdunak zehaztu duenez, “lanlekura lanalditik kanpo joaten diren kasuetan (oso gutxitan edo ia inoiz ez), gainerako (...) egiten den bezala bete daitezke zerbitzu-behar horiek, hau da, kilometroengatik kalte-ordaina emanda; ez ordea, bakoitzari (...) bat esleituta, lanalditik kanpo inolako kontrolik gabe erabiltzeko”; eta ondorioztatzen duenez, “batzuen beharrian partikularrak betetzeko esleitzen zaie (...), (...) -premiak direla esanda”.

3.- Hori dela eta, salatzailerak Etika Publikorako Batzordeari (EPB) jakinarazi dio aipatu sailburuordeek “ez dutela ezer egin” kexan esaten dena egia den ziurtatzeko edo gezurtatzeko, “nahiz eta Eusko Jaurlaritzaren Kode Etikoren 6. puntuak behartu egiten dituen faborismo-nahiak eraginda jokatu duelako edozein susmo eragin dezakeen ezer ez egitera”. Eta ez dute egin —betiere haren iritziz— “badakitelako gertakari horiek ikertuz gero, baieztatu egingo liritekeela onura horiek, eta (...) batzuk ukiezinak dira”.

4.- Interesdunaren salaketan, espresuki aipatzen da hark “*Black Cars*” moduan izendatzen duen kasuren bat, baina ez hori ikertua izan dadin eta, hala badagokio, batzorde horrek ebaluatua izan dadin —berak ere aitortzen baitu Batzordea “ez dela onura horiek egiazkoak diren edo ez erabakitzeko foro bat”—, baizik eta egiaztatzeko hainbat aldiz kexatu dela 2013az geroztik; eta behin eta berriz esaten du: kexa horien aurrean sailburuordeek “ez zuten ezer egin”. Hain zuzen ere, azken hori da —alegia, sailburuordeek ezer ez egitea— salaketaren motibo espezifikoak.

5.- Salaketarekin batera aurkeztu duen dokumentazioan, 2013ko (...)aren (...)an prentsa idatzian argitaratutako artikulua bati buruzko informazioa ere badago; uste da salaketaren egileak berak argitu eta eman zuela gaiaren xehetasunei buruzko informazioa (2. dok.).

Halaber jasotzen da (...) sailburuordeak Eusko Legebiltzarreko (...)ko Legebiltzar Batzordean egindako agerraldiaren transkripzioa; agerraldi hori Legebiltzarreko Talde (...)ak eskatu zuen, aipatu komunikabideak argitaratutako datuen eta informazioen berri izateko (3. dok.).

6.- Salaketa-idazkiari gehitutako eranskinetan jasotzen da egindako salaketei zer erantzun eman zieten (...) Saileko (...) sailburuordeak eta (...) Saileko (...)ko bulegoaren zuzendariak, bakoitzak egun batean (5. eta 10. dokumentuak, eta 8. dokumentua, hurrenez hurren).

7.- Eranskin horietan dagoen dokumentazioarekin bat etorritz, (...) Saileko (...) sailburuordeak, 2014ko abenduaren 3ko idazki batez, salatzaileari jakinarazi zion zerbitzuagatiko kalte-ordainak Dekretuan araututa daudela, eta Sailak hori aplikatu baino ez zuela egin, eta “dena den, Giza Baliabideen Zuzendaritza kalte-ordaina izan dezaketen gastuen ordainketari lotutako prozesu guztiak berrikusten ari dela”. Gainerakoan, eskertu egin zizkion “(...)aren antolamendua hobetzeko asmoz emandako iritzi guztiak: helburu horretan zurekin batera izango gaituzu –esan zion—”. 2016ko uztailaren 4an, ofizio bat bidali zion salatzaileari. Ofizio horretan hau esaten da, hitzez hitz:

“2016ko ekainaren 29an, zure idazki bat jaso dugu, (...) Unitatean (...)ei egiten zaien kontrolari buruzkoa.

(...).

Besterik gabe, agur bero bat”.

8.- Bestalde, (...)ko Bulegoko zuzendariak 2016ko maiatzaren 6an emandako erantzunean, hau baino ez zuen jakinarazi: salatzaileak “(...)en erabileraren kontrolari buruz” bidalitako dosierra (...) Sailburuordetzara birbidali zen, “dosieraren edukiak sailburuordetza horren eskumen-eremua ukitzen duela iritzita”.

9.- Etika Publikorako Batzordeak ezarrita du praktika jakin bat, hirugarrenek ustez Etika eta Jokabide Kodearen kontrakoak diren jokabideak jakinarazteko aurkezten dituzten salaketetarako. Praktika horri jarraituz, Interesdunaren idazkia eta horiei erantsitako dokumentuak bidali zitzaizkion (...) sailburuordeari, egokitzat jotzen zituen alegazioak egin zitzaizkion horietan erregistratutako gertakarien eta balorazioen inguruan.

10.- Ez zen eginbide hori gauzatu salatzaileak (...) sailburuorde gisa identifikatu zuenarekin; izan ere, salaketa erregistratu zen egunean, 2016ko azaroaren 8an, (...) hilabete baino gehiago ziren (...) jaunak aipatu kargua utzi zuela. Kargu-uztea “beste administrazio batean beste kargu bat betetzeko” egin zen, eta, zehazki, Dekretuaren bidez gauzatu zen. Dekretua indarrean sartzean, eraginpekoa berehala kanporatu zen Etika eta Jokabide Kodearen hartzaileen kolektibotik eta Etika Publikorako Batzordearen jarduera-eremu subjektibotik.

11.- Horri buruz aipatu beharra dago ezen, salaketa erregistratzeko unean, egileak ondo zekiela (...) jauna jada ez zela (...) Saileko (...) sailburuorde. Hala ondorioztatzen da 2016ko irailaren 1ean (...) sailburuordeari bidali zion eskutitzean, non hau esaten baitio hartzaileari: “zuri balorazio batzuk bidaltzera ausartzen naiz, (...) sailburuorde (...) jaunak beste kargu bat hartu duelako” (eskutitz hori 11. dokumentuan kopiatuta dago eranskin gisa).

12.- 2017ko urtarrilaren 25ean, (...) sailburuorde (...) jaunak alegazioen idazki bat erregistratu zuen, bost dokumentu erantsita, Etika Publikorako Batzorderako.

13.- (...) sailburuordeak alegazioetan zehazten duenez, salatzaileak bi idazki igorri ditu:

a) Salaketari eransten diona (1. dok.); ez du datarik.

b) 2016ko irailaren 1ean erregistratu zuena (11. dok.).

14.- Lehenengoari dagokionez, hau argitzen du: “eskari bat da, liburu bat eman diezaioten; hala ere, lehen 21 orrialdeetan, (...)an gertatutako egoera batzuen historia kontatzen du — bere ustez hura sortu zenetik gertatu direnak—, eta lan-arloko aldarrikapen batzuk egiten ditu”. Tramitazioa egiteko prozedura egokien artean ez dago ez (...)ak eskabiderako jarraitu duen prozedura, ez idazkia zuzenean sailburuari igortzea”; hala ere, alegazio-idazkian jartzen duenez, “(...)en atxikipenari buruzko puntuari dagokionez, egiaztatze-jarduketa batzuk egin ziren egindako kexan jasotako informazioa kontrastatzeko, iritzita administrazioak berak duela interes handiena (...)ak erabili eta baliatzeko irizpideak zuzen aplikatzeko”.

15.- Horretarako, (...) jaunak argudiatzen duenez, nahiz eta “baliabide materialak kudeatzeko eskumena (...) Sailburuordetzak izan”, jarduera hauek egin ziren bere erantzukizun-eremuan:

- (...)ren Zuzendaritzaren bidez —zeina (...) sailburuaren mendean baitago hierarkiaz—, (...)ren eskaerei buruzko txostena eskatu zen, zeina (...) Unitateko buruak egin baitzuen 2013ko irailaren 11n (haren idazkian 1. eranskina da).

- (...)ko Zuzendaritzak egiaztatu zuen (...)en esleipena bat datorrela 2006ko 13. Aginduan finkatutako irizpideekin ((...) Unitateko (...)ak izendatzeari eta erabiltzeari buruzko irizpideak ezartzeko agindua). Eta hala jaso zen (...) Unitateko buruak 2013ko urriaren 15ean egin zuen txostenean (II. eranskina da).

- (...) sindikatuaren idazki bati erantzunez, (...) Burutzak beste txosten bat egin zuen, eta berriz adierazi zuen zein irizpide jarraitzen den (...)ak indibidualki esleitzeko. 2014ko ekainaren 16ko data du txosten horrek (III. eranskina da).

- (...)ko zuzendariak eskatuta, (...) buruak beste txosten bat egin zuen (...)an (...)ak esleitzeari buruz, eta honako hauek zehaztu zituen: (...)ak zein (...)nek erabiltzen dituzten, zer kategoria

duten, eta (...)ak noiz erabil ditzaketen eta zertarako erabili behar dituzten. Txosten hori 2015eko uztailaren 13an egin zen (IV. txostena da).

16.- 2016ko irailaren 1eko idazkiari buruz (...) sailburuordeak alegazioetan adierazten duenez, idazki horretan “(...)an dauden berritasunen gaineko balorazioak [...] jasotzen dira”, eta badu “ihardespren bat, (...) sailburuordeak —baliabide materialen arloko eskumena duen aldetik— aipatu (...)aren idazki bati emandako erantzunerako; izan ere, erantzun hori ez zen (...)aren gustukoa izan, itxuraz”. (...) jaunak dio idazki horri (V. eranskina da) “ez zitzaiola erantzun, errepikakorra zela jo zutelako eta (...) sailburuordeak berak hango gertakariak egiaztatzeko behar beste jarduera egin zituelako, zituen eskumenetan oinarrituta”.

17.- (...) sailburuordeak alegazioetan dioenez, azken idazki horretan, salatzaileak aitortu du aldaketa batzuk gertatu direla esleipenetan, zerbitzuaren beharrak kontuan hartuta; (...) buruari dagokiola (...)alen erabilera baloratzea eta begiratzea; eta badela dekretu bat, baimena ematen duena (...)ko kideei (...)ak esleitzeko eta aukera ematen duena beste batzuei ere esleitzeko, zerbitzuko beharrak kontuan hartuta. Gehitzen duenez, “(...)ak esleitzeko, sinadura behar izaten da beti, bai eta erabiltzailearen onarpena ere, (...)a zerbitzu ofizialetan baino ez erabiltzeari buruzkoa”.

18.- Aurrekoa laburbilduz, (...) sailburuordeak, alegazioak amaitzeko, hau adierazten du: salatzaileak idazkian beste zerbait esaten badu ere, “kontuan hartu zen salatzailearen idazkia, behar ziren ikerketak egin ziren, eta ondorioztatu zen ez zela (...)esleipen okerrik egin”. Horretaz gainera, “egin beharrekoak egin dira efizientzia hobetzeko eta (...)en erabileraren gainean egon litezkeen zalantzak argitzeko”.

19.- Hori horrela, Etika eta Jokabide Kodearen 16.4 artikuluko bigarren idatzi-zatiak adierazten dituen tresna telematikoak baliatuta, Etika Publikorako Batzordeak erabaki hau hartu du, aho batez:

ERABAKIA:

I.- AURREKARIAK

1.- Gobernu Kontseiluak 2013ko maiatzaren 28an onartutako Etika eta Jokabide Kodea (EJK) sortzearen helburua politikaren etika-zentzua berreskuratzea izan zen, bai eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza berreskuratzeko erronkari erantzutea ere.

Horretarako, Etika eta Jokabide Kodeak aditzera ematen du zer jokabide, jarrera eta portaera eska dakizkiekeen Eusko Jaurlaritzako goi-mailako zuzendaritza betearazleko kide diren kargu publikoei eta parekatuei, haien jarduera publikoak eta pribatuak bat etor daitezten dokumentu horretan zehaztutako balio, oinarri eta jokabide-estandarrekin. Horren guztiaren helburua

integritatea eta eredugarritasuna sustatzea da, Jaurlaritzaren irudi instituzionala gordez, haren eraginkortasuna sendotuz eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza gutxitu ez dadin ahaleginduz.

2.- Etika eta Jokabide Kodeak oinarritzko bost balio ditu ardatz: Integritatea, Bikaintasuna, Politika eta Kudeaketa bat etorraraztea, Lidergoa, eta Berrikuntza. Gainera, funtsezko sei printzipio ditu: Inpartzialtasuna eta Objektibotasuna, Kudeaketari Lotutako Erantzukizuna, Gardentasuna eta Gobernatze Irekia, Onestasuna eta Desinteres Subjektiboa, Errespetua eta Eredugarritasuna.

Balio eta printzipio horien esparruan, Kodeak hainbat jokabide, jarrera eta portaera jasotzen ditu, Etika Publikorako Batzordeak erreferentzia-parametrotzat hartu behar dituenak gai eta zalantza etikoei erantzun beharra egokitzen zaionean, bai beren borondatez kodearekin bat egiten duten kargu publikoek eta parekatuek eskatuta, bai Kodearen xedapenak betetzeko interesa duten gainerakoek eskatuta.

3.- Horretarako, Etika eta Jokabide Kodearen 16.3 atalaren bosgarren puntuan ezarritakoaren arabera, Etika Publikorako Batzordearen eskumen da “Etika eta Jokabide Kodean jasotako balio, printzipio zein jokabideen balizko ez betetzei buruzko kexak edo salaketak jasotzea, halakorik balego, eta dagozkien izapideak bideratzea”.

II.- ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEARI AURKEZTUTAKO AZTERGAIA

1.- Salatzailleak Etika Publikorako Batzordeak esku-har dezan eskatzen du, “argitu dezan ea (...)ko sailburuorde (...) jaunaren eta (...)ko sailburuorde (...) jaunaren jardunak edo jardun-ezak urratu egin duen Eusko Jaurlaritzaren Etika eta Jokabide Kodea”. Zehatzago esateko, salatzailleak nahi du guk aztertzea ea honako hau Etika eta Jokabide Kodearen kontrakoa den edo ez: azken urteetan sailburu bien aurrean salaketak egin ditu (...) Unitateko (...)ak indibidualki esleitzearen inguruan, eta sailburu horiek, “ez dute ezer egin salaketan esandakoa egia zen egiaztatzeko, nahiz eta Eusko Jaurlaritzaren Kode Etikoaren 6. puntuak behartu egiten dituen faboritismo-nahiak eraginda jokatu dutelako edozein susmo pitz dezakeen ezer ez egitera”.

2.- Kontsiderazio mamitsuei heldu baino lehen, beharrezkoa da kontsiderazio formaletan arreta jartzea; izan ere, erabaki honen sarrerako 10. eta 11. puntuetan agerian geratu den bezala, salaketa erregistratu zenean, salaketaren jomugetako bat (...) jauna zen, (...) hilabete baino lehenagotik (...) Saileko (...) sailburuorde-kargua utzita zuena. Inguruabar hori ondo zekien salaketa sustatu zuenak, eta hala egiaztatzen da (...) sailburuordeari idatzi zion azken

idazkian (2016ko irailaren 1ekoan), non horrela justifikatzen baitu gutuna hari bidali izana: “ (...) sailburuorde (...) jaunak beste kargu bat hartu du (...)an”.

3.- Behin baino gehiagotan adierazi dugun bezala (4/2015 Erabakian da horren erakusgarri), Etika eta Jokabide Kodea Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 28ko Erabakiaz onartu zen. Kodeak EHAAn argitaratuz gero soilik sortzen ditu ondorioak, eta 2. puntuan zehaztutako kargu publikoentzat soilik du indar loteslea, behin kargu publiko horiek lege ezarritako prozeduraren arabera izendatu direnean eta horiek Kodearekiko atxikipena formalizatu dutenean. Aplikagarritasun-eredu subjektibo eta denborazko hori ez da aldatu ekainaren 26ko 1/2014 Legean (Kargu Publikoen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak Arautzen dituen Legea). Hain zuzen ere, lege horren 5., 6., 7. eta 8. artikuluetan jasotzen dira "kargu publikoen jokabide-kodea zuzentzen duten printzipio orokorrak": Legea indarrean sartu ondoren soilik dira lotesleak, eta 2. artikuluan zehaztutako kargu publikoak soilik behartzen dituzte, behin kargu publiko horiek ofizialki izendatu direnean eta horiek Legearen 11. artikuluan aipatzen den atxikitze-sistemaren bidez Legearen aginduak betetzeko konpromisoa hartzen dutenean.

4.- Kontsiderazio horiek uztartu egiten dute batetik, Etika eta Jokabide Kodearen indar loteslea eta, bestetik, kargu publikoaren izendapen ofiziala eta kode horrek aldarrikatzen dituen balio, printzipio eta jokabideekiko atxikimendua. Eta, bistan denez, kontsiderazio horiek halaber balio dute kargua uzten denerako. Kargu-uzteak, behin organo eskudunak hala erabakita eta EHAAn argitaratuta, berekin dakar funtzioak egikaritzeari utzi diona Kodearen “hartzaile” direnen kolektibotik kanporatzea berehala eta automatikoki, eta, ondorioz, Kode Etikorako Batzordearen jardura-eremu subjektibotik kanpo geratzea.

5.- Arau horren arabera, kargu publikoak betetzen dituztenek, behin haien kargu-uztea burutzen denean, utzi egiten diote Etika eta Jokabide Kodea eta Etika Publikorako Batzordearen jardun-eremura lotuta egoteari. Arau hori betetzeaz salbuesteko, arrazoi jakin batzuk egon behar dira, hau da, salbuespena gomendagarria izan behar da bai ukitutako pertsonen bermeak zaintzearen ikuspuntutik, bai norbere irudi ona zaintzeko eskubide legitimoaren ikuspuntutik. Hori gertatu zen 1/2017 Erabakian erantzun genuen kasuan. Orduan, Etika Publikorako Batzordeak espresuki eman zuen iritzia salaketan agertzen zen kargu publikoaren jokabidearen kalitate etikoari buruz, pertsona horren kargu-uztea jada EHAAn argitaratuta bazegoen ere. Baina hala egin zuen, kontuan hartuta gero kargua utzi zuenak bazuela bere kontra hirugarren batek aurkeztutako salaketaren berri, eta alegazioak ere aurkeztu zituela, artean kargu publiko gisa jardunean zegoela. Ondorioz, pentsa zitekeen nahiago zuela Etika Publikorako Batzordeak espresuki iritzia eman zezan —egindako alegazioei (ere) erantzuteko—, inhibitzea baino, zeinak bide emango baitzuen susmatzeko kargua utzi zuen pertsonak ez zuela argudiorik bere jardunaren garbitasun etikoa defendatzeko.

6.- Kasu honetan, ordea, ez dago arrazoirik aurreko puntuan aipatutako salbuespena baliatzeko, zeren eta, esan dugunez, jokabidea zalantzan jarri zitzaion kargu publikoa utzi eta

(...) hilabete geroago jarri zen salaketa; eta lehen ere esan dugunez, salatzaileak ondo zekien inguruabar horren berri. Erantzukizunak utzi dituzten kargu publikoen kontrako salaketak sistematikoki onartzeak eta tramitatzeak ekarriko luke Etika eta Jokabide Kodearen indar loteslea izatea ez bakarrik EAEko sektore publikoan dauden kargu publikoentzat, baizik eta baita ere iraganean izan direnentzat. Eta horrek ez du zentzurik integritate instituzionaleko sistema batean; izan ere, sistema horrek orainean baietsi nahi du politikaren zentzu etikoa, eta herritarrek egungo instituzioetan duten konfiantza sendotu.

7.- Kasu honetan, bestalde, bi idazki daude, gero kargua utzi zuen sailburuordeak, artean jardunean zela, salatzaileari bidali zizkionak (salatzaileak berak onartzen du badirela idazki horiek, eta bere idazkiarekin batera aurkeztu ditu; 5. eta 10. dokumentuak, hain zuzen ere), eta horrek bide ematen du, gehiago ikertu beharrik gabe, “ezer ez egin ez zuelako hipotesia” baztertzeko. Are gehiago: azken horretan, salatzaileari jakinarazi zitzaion 2016ko maiatzaren 6ko eta ekainaren 29ko kexen berri eman zitzaiola (...)ko buruari, “zuk aipatutako gertakariak egiaztatzeke eta egin beharrekoari ekiteko”; (...) Unitateko buruari eman zitzaion horren kopia bat. Baliteke salatzaileak nahi lukeen bezala ez jardutea, eta hori sala daiteke, baina ezin da salatu gaiarekiko inhibititu zenik eta ezer egin gabe geratu zenik. Bestela, aipatutakoa bezalako salaketa baten aurrean, ez dirudi (...) arduradunari honako hau baino inplikazio handiagorik eska dakiokenik: dagokien arduradun operatiboei erreklamazioaren berri ematea, gertakariak egiazta ditzaten eta dagokien bezala jardun dezaten.

8.- (...) jaunaren aurka aurkeztutako salaketari dagokionez, alegazio-idazkian aipatzen dituen jardueren zerrendak nahikoa dirudi honako hau egiaztatutzat jotzeko: “kontuan hartu zen salatzailearen kexa; zegozkion ikerketak egin ziren, eta horietatik ondorioztatu zen ez zela (...) -esleipen okerrik egin” (jarduera horiek luze dokumentatuta daude idazkiaren eranskinetan; zerrenda, berriz, erabaki honen sarreraren 15. puntuan *in extenso* kopiatuta dago)”.

9.- Haren idazkian honako hauek daude:

- I. eranskin gisa, 8 folioko txosten bat: (...) Unitateko buruak egin zuen, 2013ko irailaren 11n, eta, gero, (...)ko zuzendariak eskatuta, bidali egin zen, “(...)ak zuzenean (...) sailburuordeari zuzenean bidalitako mezu batean egindako eskaeren” ondorioz. Dokumentuan, zehatz-mehatz azaltzen da zer erregimen baliatzen den (...)ak esleitzeko, eta dokumentuko puntu eztabaidagarri batzuk aipatzen dira.

- III. eranskin gisa, 3 folioko txosten bat: (...) Unitateko buruak egin zuen, 2014ko ekainaren 16an; gero, (...)ko zuzendariak eskatuta, bidali egin zen, “Giza Baliabideen zuzendariak eskatuta, (...) Sindikatuko ordezkari hautatu eta idazkari (...) jaunak aurkeztutako idazki baten ondorioz”. Dokumentua salaketa honegatik egin zen: “(...)ko buru bik (...)a dute esleituta, eta, kasualitatez, (...) bat Unitate buruaren odoleko lehengusua da”.

- IV. eranskin gisa, 5 folioko beste txosten bat: “ (...) (...)ak esleitzeari buruzkoa” da, (...) Unitateko buruak egin, 2015eko uztailaren 13an; gero, (...)ko zuzendariak eskatuta, bidali egin zen, "honako hauei buruzko erantzun-elementuak jasotzeko: (...)ko (...)en esleipena zehaztea, eta, zehazki, (...)ak noiz eta zein (...)ek erabil ditzaketen, eta zertarako, eta (...)ok zer kategoria duten”.

10.- Hori guztia ikusita, inola ere ezin da esan (...) Saileko arduradunak ez direnik arduratu (...) Unitatean (...)ak esleitu eta erabiltzearen gaiaz, ez eta axolagabe jokatu dutenik ere (...)en kudeaketan ustez irregulartasunak egotearen inguruan. Aitzitik, behin baino gehiagotan Unitateko buruari eskatu zaio azaldu eta justifika dezala zer erregimen bete den unitateko kideek (...)ak erabiltzen dituztenean, eta horrek agerian uzten du arreta jarri dela aurkeztutako kexen aurrean, kexok bideratu egin direla, eta, arduradun operatiboei behar beste informazio eta azalpen eskatu zaiela, erabilitako sistema ontzat emateko, edo, hala badagokio, berrikusteko. Edonola ere, salaketan esaten bada ere (...) sailburuordeak “ez zuen ezer egin” salatzaileak jarritako kexen aurrean, agerikoa da salaketa horrek ez duela funtsik. Jardun zen, zalantzarik gabe, nahiz eta burutako jarduketak salatzailearen gustukoak izan ez.

11.- Etika Publikorako Batzordearen eskura jarri den dokumentaziotik ondorioztatzen da planteatu diguten gaiaren inguruan (...) sailburuordeak sustatutako jarduera ez zela mugatu informazioa lortu eta azalpenak eskatzera; aitzitik, neurri oso zehatzak ere hartu ziren praktikak eta erabakiak berrikusteko.

12.- Izan ere, (...) jaunak alegazioen idazkian adierazten duenez, lortutako informazioaren ondorioz, “aldaketa esanguratsuak gertatu dira 2012. urteko egoerarekin alderatzen bada”. Eta hau azpimarratzen du horri dagokionez: “salatzaileak berak aitortu du idazkian [...] aldaketak egin direla esleipenetan, zerbitzu-beharrak kontuan hartuta”.

13.- Eta 2016ko irailaren 1eko idazkian, salatzaileak berretsi egiten du nolabait alderdi hori, hitzez hitz baitio “2016ko abuztuaren 24an, (...) buruak Unitate Kontseiluan jakinarazi zuen (...)tzako buruari eta (...)ko buruari ez dietela (...)ik esleitzeko, nahiz eta ezer aldatu ez den eta lan berbera egiten jarraituko duten”. Salatzaileak neurri horren gainean zer balorazio egiten duen alde batera utzita eta neurri hori egokia ote den aztertu gabe —Etika Publikorako Batzordeari ez baitagokio halakorik ebaluatzea—, nabarmena dirudi aldaketa batzuk egiten ari direla (...) Unitatean (...)ak esleitzeko erregimenean; eta aldaketa horiek gezurtatu egiten dute (...) sailburuordeak “ezer egin ez duenik” aurkeztutako kexen inguruan ((...) Unitatean (...)ak indibidualki esleitzeko erregimenean ustez irregulartasunak gertatu zirelako jarri zen kexa).

14.- Salatzailearen ustez, Etika eta Jokabide Kodearen 6. atala urratzen da, “kargu publikoen eta parekatuen integritateari, inpartzialtasunari eta objektibotasunari lotutako jokabide eta portaerei” buruzkoa. Lehenengo puntuan ezartzen da kargu publikoek “ez dutela egingo pertsona edo erakunde publiko edo pribatu batzuen alde edo faboritismo-nahiak eraginda jokatu dutelako edozein susmo pitz dezakeen ezer”.

15.- Ordea, salatzaileak ez du zuzenean (...) sailburuordea salatzen integritate, inpartzialtasun eta objektibotasunaren printzipioen kontrako jardueraren bat egiteagatik; aitzitik, sailburuorde horren mende daudenetako batek (...) Unitateko buruak) ustez egindako horrelako jarduera baten aurrean inhibitu izanagatik salatu du. Horregatik, badirudi atal horren 3. atala dela aplikatzekoa; izan ere, atal horren arabera, “Beren erabakiak edo irizpideak beste enplegatu edo kargu publiko batzuek betez gero, eskura dituzten bitarteko guztiak jarri beharko dituzte irizpide edo erabaki horiek interes publikoa betetzen erabil daitezen, eta inoiz ere ez enplegatu edo kargu publiko horiek haietatik zuzenean edo zeharka etekina atera dezaten beraiantzat edo beste batzuentzat”.

16.- Kode Etikorako Batzordearen esku utzitako dokumentazioan ikusten denez, (...) jaunak egokiro bideratu zituen kexak (...) Unitatean (...)ak ustez irregularki erabili izanari buruzkoak), salatzailea horrekin bat etorri ala ez. Izan ere, (...) jaunak txostenak lortu zituen, datuak jaso, azalpenak eskatu eta ikerketak egin —Etika eta Jokabide Kodearen 6. ataleko 4. puntuan jartzen duenez, bere erabaki eta ekintza guztiak “informazio fidagarrian oinarrituta egongo dira (txostenak, azterlanak, proiektuak, irizpenak), bai eta ebatzi beharreko gaiari lotuta eskura dauden datuen azterketa objektiboetan ere”—. Horretaz gainera, mendean zituenei adierazi zien kontrastatu egin behar dituztela (eta behar izanez gero, berrikusi) zerbitzu publikoaren eskakizunekin bat ez zetozen jarduera-irizpideak, eta interes orokorrari lehentasuna eman behar diotela. Haren jardueran ez da ondorioztatzen inolako ulermen edo tolerantziarik egon denik haren mendekoei kexetan egozten zaizkien jokabideekiko, eta ezin da ikusi integritate, inpartzialtasun eta objektibotasun printzipioen kontrako jokabideak babestu nahi direnik.

Hori guztia aintzat hartuta, Etika Publikorako Batzordeak hau erabaki du, aho batez:

ERABAKIA:

1.- Ez onartzea tramiterako (...) jaunaren kontra egindako salaketa, salaketa erregistratu zenean (...) hilabete baino gehiago baitziren (...) jaunak aipatu kargua utzi zuela. Hori guztia, ezertan eragotzi gabe erabaki honen ebazpen-zatiaren 7. puntuan sartutako kontsiderazioak.

2.- Etika Publikorako Batzordeak ez du ikusten arrazoirik (...) jaunaren jokabidearekin Etika eta Jokabide Kodearen 6. atala urratu dela esateko. Izan ere, egokiro bideratu zituen jasotako kexak (...) Unitatean (...)ak ustez irregularki erabili izanari buruzkoak): txostenak lortu zituen, datuak jaso, azalpenak eskatu eta ikerketak egin, eta mendean zituenei adierazi zien kontrastatu egin behar dituztela (eta behar izanez gero, berrikusi) zerbitzu publikoaren eskakizunekin bat ez zetozen jarduera-irizpideak, eta interes orokorrari lehentasuna eman behar diotela. Haren jardueran ez da ondorioztatzen inolako ulermen edo tolerantziarik egon



denik haren mendekoei kexetan egozten zaizkien jokabideekiko, eta ezin da ikusi integritate, inpartzialtasun eta objektibotasun printzipioen kontrako jokabideak babestu nahi direnik.

Josu Iñaki Erkoreka Gervasio.
Etika Publikorako Batzordeko burua
Vitoria-Gasteiz, 2017ko otsailaren 9a.